

Bilbao Kirolak erakundeko armairuak erabiltzeko araudia.

- ❖ Motaren arabera, armairu indibidualak euro 1eko txanponekin (giltza elektronikodun sarrailak), fitxekin (tag-ak) edo giltzarrapoekin (erabiltzailearen jabetzakoak) funtzionatzen dute.
- ❖ Fitxadun itxiera duten armairuetan (tag-ak), sarrailak itxi eta irekitzeko sistemak funtzionatu dezan, botoia sakatu behar da, bai Bilbao Kirolak erakundearen abonu-txartelarekin, bai fitxa-makinetako fitxa batekin (euro 1en truke; ondoren, berriz ere trukea egin eta diru-kopuru hori berreskuratu daiteke). Sistema honetan erabil daitezkeen txartelek irudi bat dute inprimatuta, edo, hondo zuria dutenen atzealdean, "B" bat agertzen da obalo beltz baten gainean. Txartel mota hauetakoren bat ez baduzu, aldatzeko eska dezakezu.
- ❖ Neurri desberdinetako armairu indibidualak daude; handienetan, beroki eta aterkiek izango dute lehentasuna.
- ❖ Zenbait aldagelatan, kolektibo, klub eta ikastetxeetako ekipajeetarako armairuak ditugu; armairu horiek gure langileek esleitzen dituzte, eta giltzarekin edo giltzarrapoarekin funtzionatzen dute, eskatzen den identifikazio-agiriaren truke.
- ❖ Arroparako esekigailuak jasotzeko zenbait gune ditugu. Esekigailuak erabili ostean, mesedez, utzi itzazue berriz ere gune horietan.
- ❖ Erabiltzaileak libre utzi beharko du armairua, erabili ostean. Gauero, langileek armairuak hutsituko dituzte.
- ❖ Armairuetan ezin izango dira gorde arin hondatzen edo narriatzen diren elementuak.
- ❖ Erabiltzaileei gomendatzen zaie ez eramateko instalazioetara balio handiko objekturik; izan ere, Bilbao Kirolak erakundea inola ere ez da armairuetan utzitako objektuen balioaren erantzule egingo.

❖ Mesedez, egiaztatu ezazu armairua itxita geratu dela, eta gomendatzen dizugu ez uzteko objekturik armairutik kanpora.